

LIZENTZIAK ETA BAIMENAK: OINARRIZKO ARAUAK

Arau hauek funtzionarioei eta administrazio araubidean kontratatutako langileei aplikatuko zaizkie. Lan araubidean kontratatutako langileek Langileen Estatutuko xedapenei eta une bakoitzean indarrean den Lan Hitzarmenari jarraituko diote.

(1) 15 egun naturaleko lizentzia ordaindua (Otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 9. artikulua).

(2) Emakumezko funtzionarioek, haurdun daudenean, eskubidea izanen dute amatasun lizentzia bat hartzeko hamazazpi aste etengabe. Lizentzia hori bi aste gehiago luzatuko da, haurrak ezgaitasuna badu, eta, ume bat baino gehiago erditzean, bigarrenetik aurrera ere bai. Interesdunak erabakiko du lizentzia hori nola banatu. Betiere sei aste erditu ondoan hartu beharko ditu.

Aurreko atalak esanak esan, erditu eta gero amak nahitaez hartu beharreko sei asteko atsedena deusetan galarazi gabe, bi gurasoek lan egiten badute, amak, erditu ondorengo atsedenaldia hastean, erabakitzen ahalko du aitak har dezala erditu ondorengo atsedenaldiaren zati zehatz eta etengabe bat, amarenarekin batera edo amarenaren ondoren. Aitak hasiera batean onarturiko lizentzialdia hartzen segitzen ahalko du, ama lantokira itzultzeko aurreikusirik unean hark aldi baterako ezgaitasuna badu ere (Otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 10. artikulua).

Erditze lizentzia ordaindua lanaldi partzialez hartzen ahalko da, otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoarekin bat.

(3) Adopzioaren kasuan edo harrera bakun, iraunkor eta adoptatu aurrekoaren kasuan, lizentziak hamazazpi aste iraunen du, etenik gabe. Lizentzia hori bi aste gehiago luzatuko da, adoptaturiko edo harreraren harturiko haurrak ezgaitasunik badu, eta, ume bat baino gehiagoren adopzio edo harreraren, bigarrenetik aurrera ere bai.

Interesdunek erabakiko dute noizdanik kontatu epe hori, administrazioak edo epaileak harrera erabakitzen duenetik edo epaileak adopzioa ebazten duenetik aurrera. Adingabe berak ez du behin ere sortuko artikulua honetan arautzen diren lizentziatariko bat baino gehiago hartzeko eskubiderik.

Bai aitak eta bai amak lan egiten dutenean, lizentzia berek nahi duten bezala partekatuko da, aldi berean edo hurrenez hurren, betiere zati etengabeetan.

Nazioarteko adopzio edo harreraren kasuan, beharrezkoa denean gurasoak alde zuzenetik joatea adopzioan hartutako haurraren jatorrizko herrialdera, posible izan da aurreko paragrafoetan kasu bakoitzerako aurrez ikusitako lizentzia lehenago hastea, hain zuzen ere, adopzioa onesten duen ebazpen judiziala edo harreraren gaineko erabaki administratibo edo judiziala baino lehenagoko lau asteetan. Horrez gain, halako kasuetan bi hilabete bitarteko baimen bat hartzeko eskubidea izanen da, aldi horretan oinarrizko ordainsariak soilik jasoko direlarik.

Adopzioa edo harrera bakun, iraunkor eta adoptatu aurrekoa, artikulua honetan aipatzen direnak, aplikatzeko den arautegian ezarriko dira. Harrera bakunak gutxienez ere urtebete iraunen du (Otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 11. artikulua).

Erditze lizentzia ordaindua lanaldi partzialez hartzen ahalko da, otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoarekin bat.

(4) Hamabost egun naturaleko baimen soldataduna emanen da, haur baten jaiotza, harrera edo adopzioagatik. Jaiotzen denetik, administrazioak edo epaileak harrera erabakitzen duenetik edo epaileak adopzioa ebazten duenetik aurrera hartuko du gurasoak.

Baimen horrek hogeita egun natural iraunen du jaiotza, adopzioa edo harrera familia ugari batean gertatzen denean, familia jaiotza, adopzio edo harrera horrekin ugari bihurtzen denean edo familian ezgaitasuna duen pertsona bat dagoenean.

Haur bat baino gehiagok erdituz gero edo haur bat baino gehiago adoptatu edo hartuz gero, aurreko atalean aipatzen den baimenaren iraupena beste bi egun naturalez luzatuko da, bigarrenetik aurrera, edo haietarik batek ezgaitasunik badu (Otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 16. artikulua).

(5) Lizentzia hauek gehienez ere bost hilabete iraunen dute bi urte naturaletan. Lizentzia eman edo ukatzeko, zerbitzuaren beharrak hartuko dira aintzat, salbu eta eskatzaileak lizentzian hasi baino lehendik ordezkoa duenean (Otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 14. eta 15. artikulua).

(6) Hamabi hilabete baino gutxiagoko haurra duten funtzionarioek eskubidea izanen dute egunean ordubetez lantokitik lekutzeko. Denbora horren ordez zilegi izanen dute, funtzionarioak nahi duen moduan, 3 ordu laurdeneko bi aldi hartzea edo lanaldia ordu batez murriztea. Kasu horretan, lanaldiaren hasieran edo bukaeran hartu beharko da. Hautaketa hori ezin izanen zaio ukatu salbuespenez eta arrazoien gainean baizik, emateak zerbitzuaren funtzionamenduari traba handia egiten dioten kasuetan. Haur bat baino gehiagok erdituz gero, baimen hori hein berean handituko da.

Aitak edo amak bereizketarik gabe hartzen ahalko dute baimen hori, biek lan egiten badute.

Bularra emateko baimena bateraezina izanen da aitak edo amak erditze, adopzio edo harreraren ondoriozko lizentziarik edo lanaldia murrizteko erregelamendu bidez ezarri diren kasuekin.

Bularra emateko denboraren ordez bidezkoa den denbora lanaldi osoetan metatzen duen baimen soldatadun bat eskatzen ahalko dute interesdunek (Otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren 17. artikulua).

(7) eta (8) Lanaldiaren seirena, herena edo erdia murriztuko da.

1.- Lanaldia murriztea zerbitzuaren beharren mende ez dagoen kasuak:

a) Funtzionarioak, legezko zaintza dela medio, zuzenean bere kargu duenean hamabi urtetik beherako haurren bat edo legez aitortutako ezgaitasuna duen pertsonaren bat.

b) Funtzionarioaren ezkontideak edo bikotekide egonkorak edo odol nahiz ezkontza bidezko lehen graduako ahaideren batek ezgaitasunen bat badu.

c) Funtzionarioa adineko eri kronikoren batekin edo legez aitortutako ezgaitasuna duen adinekoren batekin bizi bada eta hura zaintzen badu (odol edo ezkontza bidezko bigarren gradura bitarteko ahaideak).

Genero indarkeriaren biktima izan diren emakumezko funtzionarioek, egiaz babestua izan daitezkeen edota gizarte laguntza osoa izan dezaten, eskubidea izanen dute lanaldia murrizteko, beharrezkoa izanez gero.

2.- Lanaldia murriztea zerbitzuaren beharren mende dagoen kasuak:

a) Funtzionarioak berrogeita hamabost urte edo gehiago baditu.

b) Funtzionarioak lanerako aldi baterako ezintasunik edo ezintasun iraunkorrik sor ez dezakeen eritasuna badu, Hezkuntza Departamentuko Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Atalak hari buruz emandako txostenaren arabera.

c) Funtzionarioak, legezko zaintza dela medio, zuzenean bere kargu badu hamabi eta hamasei urte (biak barne) bitarteko haurren bat.

d) Funtzionarioaren interes partikularrarengatik.

3.- Zerbitzuan ordezko langilerik jarri beharrik ez izatea lanaldia murriztu ahal izateko baldintza den kasuak:

Lanaldiari seiren bat kentzea onartu ahal izanen da gorago aipatutako 1. eta 2. puntuetan azaltzen diren kasuetan, baldin eta zerbitzua

betetzeko ordezeko langilerik jarri beharrik ez badago.

4.-Iraupena edo luzapenak:

Irakasleak: Irakasleei lanaldiaren murrizketa emanen zaie ikasturtea amaitu arte betiere, salbu eta hura emateko arrazoiak lehenago bukatzen diren. Eskatzen diren luzapenak ikasturte osorako izanen dira.

Irakasleak ez diren langileak:

- Lanaldi murrizketak sei hilabete iraunen du gutxienez.
- Lehen sei hilabeteetan, arrazoi hauek baino ez dira onartuko lanaldi murrizketaren amaiera aurreratzeko:
 - a) Hura onartzeko kausa epe hori bete aurretik amaitzea.
 - b) Funtzionarioak, erditze, adopzio edo harreragatik, ordaindutako lizentziari ekitea.
 - c) Funtzionarioari jardunaz besteko administrazio egoera bat deklaritzen bazaio.

Interes partikularragatik lanaldi murrizketaren hasierako iraunaldian eta bai, halakorik bada, luzapenetan ere, amaiera aurreratu onartzeko arrazoi bakarrak aurreko b) eta c) ataletan aurrez ikusitakoak izanen dira.

- Lanaldia murrizteko epea bukatu baino lehenago interesdunak luzapena eskatzen ahalko du, baldin eta murrizketa emateko inguruabarrak aldatu ez badira.
- Lanaldi murrizketaren luzapenik ez bada, murrizketa ematea zerbitzuaren beharren mende dagoenean, ez da arrazoi beragatik lanaldia murrizteko baimenik emanen harik eta aurreko murrizketa amaitu zenetik sei hilabete igaro arte, gutxienez.

5.-Lanaldi murrizketa gauzatzeko baldintzak:

Lanaldiaren murrizketa, oro har, egunero gauzatu da langileak ezarritik daukan lanaldiaren lehen eta/edo azken orduetan, zerbitzuaren beharren arabera.

6.-Lanaldi murriztuaren ordainsaria:

Lanaldi murrizketak berekin dakar funtzionarioaren ordainsari guztien murrizketa proportzionala egitea, familia laguntzarena salbu. Era berean, kotizazio sozialak eta dagozkien deskontuak lanaldi murriztuari dagozkion ordainsarien arabera kalkulatu dira.

7.-Lanaldia murrizteko baimenari lotutako mugapena.

Lanaldi murrizketa lortzen duten funtzionarioak denbora tarte horretan ezin izanen dira beste ezein lanbide jardueratan edo lanpostutan aritu.

(Apirilaren 4ko 27/2011 Foru Dekretuaren 1. artikulua eta ondorengoak)